

HITZ BITAN

MENDIA. Hiru ibilbide izanen dira ekainaren 1ean

Urrizateko itzuliarekin ospatuko du Auñamendi elkarteak 30. urtemuga

Aitor Renteria | BAIONA

Bidarraiko Auñamendi mendi elkarteak 30. urtemuga ospatzen du aurten, eta horren kariatara mendi ateraldi berezia antolatu du, ekainaren batean: Urrizateko itzulia. Auñamendiren xedea ez da sekula elite edo talde tipi bati zuzendua izan. Ildo horretatik, hiru ibilbide proposatzen ditu Urrizateko itzulia bururatzeko. Ibilbide laburrena 14 kilometrokoa da, er-taina 25ekoa eta azkena 34 kilometrokoa.

Abiatzea goizeko 07:30ean egingen da, Bidarraiko plazatik. Itzulia bukatu ondoren, arratsaldeko seietan, sari banaketa gauzatuko dute. Ondotik musi-

kariak izanen dira sari banaketa alaitzeko eta azkenik ohikoa den hurrupaldia egingen da, herri afaria egin aitzin.

«Urrizate hautatu dugu duela 50 urte bezala dagoelako, ibar hertsia da eta natura den bezala dasta daitekee, jendeen eragina sobera pairatu gabe» adierazi zuen Beñat Auriol Auñamendiko lehendakariak. Mendi ateraldi hau Euskal Herriko Federazioaren ibilbide luzeen artean agertzen da.

Amets baten hegaldia

Elkartea 1972an sortu zuten Baionan bizi ziren euskaldun eta bretoi batzuek. Hatsarriko lehendakaria Yann Trellu bretoia izan zen. Arras hondatua



EGUNKARIA

Urrizate inguruetan egingo da Auñamendi elkartearen urtemuga ospatzeko itzulia.

zegoen Etxe Zaharria erosi zuten Bidarrain eta geroztik aterpe gisa antolatu zuten. 1975ean egin zituzten lehen ikastaro berdeak haurrei begira. 1979an Menditarrenea etxea erosi zuten Bidarrain. Oronen buru, azken erosketarekin, Auñamendik 80 pertsona aterbetzeko


ahala dauka gaur egun. 1982an lehen permanentea hartu zuten, Serge Isteke baigorriara eta aurten 20 urte beteko ditu mendi elkarteak.

«Gure xede nagusia prestakuntza izan da» azpimarratu zuen Auriolak. Orotara 40 formatu ditu Auñamendik eta

hauetariko zenbaitzuk beren enpresak sortu dituzte, bertzeak bertze Ur Bizia eta Arteka.

Elkarteak ez du sobera handitu nahi eta bertan prestatutakoei eskaintza zabaltzea dute gutizia. «Ideia berriak eta jende berriak behar ditugu aitzina joateko» gehitu zuen Auriolak.

NBA. Los Angelesko O'Nealen eta Bryanten lan ona ez zen nahikoa izan



KEVORK DJANSEZIAN / AP

Sacramentok berdindu egin du Mendebaldeko finala

Bana berdindu du bart Sacramento Kings taldeak Los Angeles Lakersen kontra jokatzeko ari den NBAko Mendebaldeko finala (96-90). Chris Weber izan zen etxekoaren artean onena (21 puntu) eta ongi bete zuen Sotjakovicen hutsunea —min hartuta dago—. Kontrarioen artean, O'Neal (35 puntu, argazkian) eta Bryant (22) izan ziren onenak, baina ez zen nahikoa izan kanporaketako bigarren garaipena lortzeko.

SOKATIRA

Larunbatean hasiko da Euskadiko Txapelketa, lur gainean, sei klub ariko direlarik lehian

Iaz atsedena hartuta, berriro Nuarbek (Gipuzkoa) hartuko du lur gaineko Euskal Herriko Txapelketaren lehen saioa, larunbatean (17:00). Guztira sei klub ariko dira lehian; iaz baino bat gehiago, Abadiño tartean izango baita. Hiru izango dira Bizkai-koak: Goiherri (Erandio), Getxo eta Abadiño. Bi Gipuzkoakoak: Nuarbe eta Mutriku, eta bat Nafarroakoa: Areso. Larunbatetan eta igandeetan jokatuko dira saioak, uztailak 7 bitarte.

ERRUGBIA

Zeelanda Berriak eta Ingalaterrak jokatu dute Munduko Kopako finala, Bartzelonan

Bi selekziorik indartsuenek jokatu dute emakumezkoen IV. Munduko Kopa, larunbatean: Zeelanda Berriak eta Ingalaterrak. Atzo jokatu zituzten finalerdiak. Ingalaterrak 5-10 irabazi zion Kanadari eta Zeelanda Berriak 30-0 Frantziari. Zeelanda Berria da txapeldua eta Ingalaterra Sei Nazioetakoa. Ingelesekin, ordea, irabazi egin zieten zeelandarrei Test-partidan.

TENISA

Cristina Torrensek ez du Madrilgo Irekiko lehen saioa gainditzetik izan

Dinara Safina errusiarraren kontra galdu zuen atzo Cristina Torrens nafarrak Madrilgo Irekiko lehen saioan (6-3, 6-7 eta 6-0) eta, iaz bezala, aurreneko kanporaketan esan behar izan dio agur WTA zirkuituko txapelketari. Dinara Safina, Marat Safin errusiarraren arreba, aurrekanporaketa gaitzuta sartu da azken unean txapelketan eta ezusteko handia eman zuen atzo Torrens kanpora utzita.

GOLFA

Jose Maria Olazabal hirugarren irabazien zerrendan

Merituen Ordena izeneko irabazien zerrendaren berri eman zen atzo, eta Jose Maria Olazabal hondarribiarra hirugarren agertzen da bertan (846.705,26 euro), Retief Gossenen (1.157.635,64 euro) eta Ernie Elsen (902.218,20 euro) atzetik. Nabarmenezkoa da Colin Montgomerie eskoziarra lehen postuetara itzuli dela Alemaniako irekian lortutako bigarren postuari esker. Bestalde, Espainiako Izki Challenge-a hasiko da Urturin (Araba) bihar. Europako Challenge-ko proba da.